

ARRETA EGOKIKO SISTEMAK IZAN BEHAR DITUEN ELEMENTUAK

Arreta Egokiko Sistema (AES)

AES batek honako alderdi hauek izan behar ditu:

- a) Informaziorako sarbidea. Horrek, gutxienez, honako hauek izan behar ditu:
 - Produktuaren deskribapena (produktu-mota eta merkataritza-izena)
 - Hori osatzen duten espezieak (izen arrunta eta izen zientifikoa)
 - Aprobetxamendu-herrialdea. Eta arriskuen azterketak hala eskatzen duenean, nazio azpiko eskualdea eta aprobetxamendu-emakida.
 - Kopuruak (tamainaren, pisuaren edo unitate-kopuruaren arabera)
 - Hornitzailearen izena eta helbidea
 - Merkaturaturiko produktuen legezko jatorria ziurtatzen duten dokumentuak edo bestelako informazioak

- b) Hondarraren ebaluazioa; kontuan izan behar du, gutxienez:
 - Legeria aplikagarria betetzen denaren bermea (adibidez, aprobetxamenduan, garraioan eta merkataritzan legezko alderdiak betetzen dituzten hirugarrenen ziurtapenaren edo egiaztapenaren bidez).
 - Espezieen garrantzia, legez kanpoko aprobetxamenduaren arriskuari dagokionez.
 - Herrialdean/eskualdean legez kanpoko aprobetxamendu-jarduteen garrantzia; kontuan hartuta inguruan aitorturiko gatazka armatua zein herrialdeko ustelkeria.
 - Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak zein Europar Batasunaren Kontseiluak ezarritako zehapenak.
 - Hornikuntza-katearen konplexutasuna

- c) Arriskuen arintzea, horren ebaluazioan ez mespretxagarritzat jotzen bada. Zehazki, honako hauekin:
 - Antzemandako arriskua txikiagotzen duten neurriak eta/edo prozedurak (produktu-aldaketa, gune-aldaketa, hornitzaile-aldaketa eta abar).
 - Produktuen legezkoatasuna egiaztatzen duten informazio edo dokumentu osagarriak.

Kontrol baten kasuan eman beharreko dokumentuak eta informazioa.

- AES garatzen duen dokumentu idatzia: norberaren edo beste baten testu idatzia, baina, betiere, berau ezartzen ari den agentearen berezitasunetara egokituta.
- Aprobetxamenduen edo produktuaren garraioaren legezkoatasuna adierazten duten dokumentuak: aldatu egingo dira herrialde batetik bestera; hortaz, beharrezkoa izango da aprobetxamenduaren herrialdea/k zein jatorrizko herrialdea/k edo igarotze- nahiz eraldaketa-herrialdea/k aztertzea.
- Hornikuntza-katea: hornikuntza-kateak urratsak erakutsi behar ditu ekoizpen-prozesuan; bai eta nahasitako enpresak ere. Bi aukera izango ditugu:
 - o Produktuak zaintza-kateko ziurtagiri baten irismenaren baitan erostea. Erosketa horiek ez dute informazio gehiagoren beharrik izango.
 - o Produktuak aipaturiko irismenetik kanpo erostea. Kasu horretan, hornikuntza-katea dokumentatua izan behar da urrats bakoitzean, prozesu guztia bermatze aldera.

- Esportazio-dokumentuak: fakturak, Packing List, Bill of landing, International Consignment Note, ziurtagiri fitosanitarioa eta abar.

Kontuan hartu beharrekoak:

- AES erosketa egin aurretik ezarri beharko da
- Produktuak fisikoki sartu behar izan dira EBn kaltetuak egoteko
- Ziurtagiri-sistemek EZ dute ordezkatzen nahitaezko AES

Informazio gehiago hemen: http://ec.europa.eu/environment/forests/timber_regulation.htm